

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ASPARRENEKO UDALA

Baso aprobetxamendu bat besterentzea

Onartu direnez onura publikoko 306 mendian, Apota eta Ubarrundia izenekoan, baso aprobetxamendu bat besterentzeko baldintza ekonomiko-administratiboen eta baldintza tekniko berezien agiriak, jendaurrean jartzen dira zortzi egun baliodunez, Asparreneko Udalaren erregistro orokorrean (Herriko Enparantza, 1, Araia), interesdunek aukera izan dezaten aztertzeko eta egoki jotzen dituzten erreklamazioak aurkezteko.

Aldi berean, lizitaziorako deialdia egiten da. Dena den, lizitazio hori atzeratu egingo da, erreklamazioak aurkeztu direla-eta beharrezkoa bada.

1.- Xedea: baso aprobetxamendu hau besterentzea:

Lote bakarra. Egurretarako 1.106 pago, 306 OPMan, guztira 1.106 tonako kubikazioa egiten dutenak.

2.- Izapidetzea eta prozedura:

a) Izapidetzea: arrunta.

b) Prozedura: irekia.

c) Eskaintzak baloratzean kontuan hartuko den irizpidea: prezioa

3.- Lizitazio oinarria: 6.987,78 euro gehi BEZa.

4.- Behin betiko bermea: eskaintza gorenaren zenbatekoaren ehuneko 5 (BEZa aparte).

5.- Aprobetxamenduaren epea: 2017ko abenduaren 31.

6.- Agiriak eta argibideak eskuratzea eta espedientea aztertzea: udal bulegoetan (Herriko enparantza, 1, Araia), eskaintzak aurkezteko epearen barruan.

7.- Eskaintzak aurkeztea:

a) Eskaintzak aurkezteko epea: 26 egun natural, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, 09:00etatik 14:00etara. Eskaintzak aurkezteko azken eguna larunbata edo egun baliogabea bada, hurrengo egun balioduneko 14:00ak arte luzatuko da epea.

b) Aurkeztu beharreko agiriak: ekonomia eta administrazio klausulen pleguan zehazten dira.

c) Eskaintzak aurkezteko lekua: Asparreneko Udalaren erregistro orokorra (Herriko enparantza, 1. 01250 Araia).

8.- Proposamenen gutun-azalak irekitzea: B gutun azala ekitaldi publikoan irekiko da, bere garaian jakinaraziko den egunean.

9.- Iragarkiaren gastuak: esleipendunak ordainduko ditu.

10.- Kontratatzailerearen profila, non deialdiari buruzko argibideak ageri diren eta agiriak lor daitezkeen: www.asparrena.net.

Araia, 2016ko urriaren 4a

Alkatea

CONSUELO AUZMENDI JMÉNEZ